IZFE SA - INFORMATIKA ZERBITZUEN FORU ELKARTEAREN ETA HERNANIKO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA

CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE IZFE, SA, SOCIEDAD FORAL DE SERVICIOS INFORMÁTICOS, Y EL AYUNTAMIENTO DE HERNANI

BILDUTA

Alde batetik, Xabier Lertxundi jauna/andrea, Hernaniko Udaleko alkatea.

Eta bestetik, Eider Mendoza Larrañaga andrea, IZFE SA - Informatika Zerbitzuen Foru Elkarteko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

Bi alderdiek, nork bere erakundearen izenean eta berau ordezkatuz, hitzarmen hau izenpetzeko legezko gaitasun nahikoa aitortu diote elkarri, eta horretarako honakoak adierazi dituzte,

REUNIDOS

De una parte, D/Dña Xabier Lertxundi, Alcalde/sa del Ayuntamiento de Hernani

Y de otra, D/Dña Eider Mendoza Larrañaga, Presidenta del Consejo de Administración de IZFE SA-Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Pública Foral de Servicios Informáticos.

Ambas partes, actuando en nombre y representación de las respectivas entidades, se reconocen mutuamente la capacidad legal suficiente para el otorgamiento de este convenio, y al efecto,

ADIERAZITAKOAK

I. Autonomia Erkidego osorako erakundeen eta bere Lurralde Historikoetako Erakundeen arteko harremanei buruzko azaroaren 25eko 27/1983 Legearen 7.a.5. artikuluak Lurralde Historikoei esleitzen die toki-erakundeentzako laguntza eta aholkularitza teknikoaren arloko eskumen esklusiboa.

EXPONEN

I. El artículo 7.a.5 de la Ley 27/1983, de 25 de noviembre, de Relaciones entre las Instituciones Comunes de la Comunidad Autónoma y los Órganos Forales de sus Territorios Históricos, atribuye a estos la competencia exclusiva en materia de asistencia y asesoramiento técnico a las entidades locales.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.1. artikuluak Aldundiaren berezko eskumenen artean ezartzen du, nolanahi ere, udal-zerbitzuen arteko koordinazioa, udal-eskumeneko zerbitzuak probintziako lurralde osoan egoki egitea bermatzeko; udalerriei laguntza eta lankidetza juridikoa, ekonomikoa eta teknikoa ematea; eta, bereziki, Administrazio elektronikoari lotutako zerbitzuak eskaintzea 20.000 biztanle baino gutxiago dituzten udalerrietan. Baldintza hori betetzen dute gaur egun Gipuzkoako 88 udalerrietatik 81k.

Así mismo, el artículo 36.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local, establece entre las competencias propias de la Diputación, en todo caso, la coordinación de los servicios municipales entre sí para la garantía de la prestación integral y adecuada en la totalidad del territorio provincial de los servicios de competencia municipal, la asistencia y la cooperación jurídica, económica y técnica a los municipios y, en particular, la prestación de los servicios de administración electrónica en los de población inferior a 20.000 habitantes, condición que, a fecha de hoy, cumplen 81 de los 88 municipios guipuzcoanos.

Bestalde, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoak (ETEL), 17.1.30) artikuluan xedatzen duenez, udalerriek beren eskumenak baliatu ahal izango dituzte honako arlo hauetan: “teknologia berrietarako sarbidea antolatzea eta kudeatzea, administrazio elektronikoa, prozedurak arrazionalizatzea eta sinplifikatzea, eta, bereziki, udalerrian herritarrek informazioaren eta komunikazioaren teknologien erabilera efiziente eta jasangarrian parte har dezaten sustatzea”.

Por su parte, el artículo 17.1.30) de la Ley 2/2016, de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi (LILE) dispone que los municipios podrán ejercer competencias propias en materia de “ordenación y gestión de acceso a las nuevas tecnologías, administración electrónica, racionalización y simplificación de procedimientos y, en particular, la promoción en el término municipal de la participación de los ciudadanos en el uso eficiente y sostenible de las tecnologías de la información y las comunicaciones”.

II. Aurreko I. atalean aipatutako eskumenak baliatuz, Gipuzkoako Foru Aldundiak informatika-zerbitzuak eskaini eta ematen dizkie lurralde historikoko udalei nahiz bestelako toki-erakundeei, Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea - Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (hemendik aurrera IZFE SA) foru sozietate publikoaren bitartez eskaini eta eman ere, aldundiaren bitarteko propio pertsonifikatua izaki.

II. En ejercicio de las competencias enumeradas en el apartado I, la Diputación Foral de Gipuzkoa ofrece y presta servicios informáticos a los ayuntamientos y otras entidades locales del Territorio Histórico a través de la sociedad pública foral Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea - Sociedad Foral de Servicios Informáticos SA (en adelante IZFE SA), medio propio personificado de la Diputación Foral.

“Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA” Merkataritzako Entitatearen Estatutu Sozialen 3. artikuluak honek xede sozialtzat Aldundiarentzako zerbitzu informatikoak zerbitzatzea eta zerbitzu horien eragin-eremuan bere helburuak betezeko berarekin elkarlanean aritzea duela ezartzen du.

El artículo 3 de los Estatutos Sociales de la Entidad Mercantil Anónima “Informatika Zerbitzuen Foru Elkartea-Sociedad Foral de Servicios Informáticos, SA”, dispone que ésta tiene por objeto social la prestación de servicios informáticos a la Diputación y la colaboración con ella en la esfera propia de dichos servicios para el cumplimiento de sus fines.

III. Zuzenbidearen ikuspegitik, laguntza hori aurrera eramateko Gipuzkoako Foru Aldundiak eta EUDEL elkarteak lankidetzarako esparru-hitzarmena sinatzen dute eta hitzarmen hori oinarri hartuta sinatzen dira gero udal edo toki-erakunde bakoitzaren eta IZFE SAren arteko berariazko hitzarmenak.

III. Esta asistencia se articula jurídicamente a través de un convenio de colaboración entre la Diputación Foral de Gipuzkoa y EUDEL, que sirve de marco para los convenios específicos a suscribir posteriormente entre cada ayuntamiento o entidad local e IZFE SA.

2002. urtean izenpetu zen Lankidetzarako esparru hitzarmen hori duela gutxi berritu egin da.

Dicho convenio marco de colaboración, suscrito en el año 2002 ha sido renovado recientemente.

Lankidetzarako esparru-hitzarmen horren arabera, bere lurraldeko udalek nahiz bestelako toki-erakundeek arlo honetan behar duten laguntza teknikoa bere foru sozietate publikoaren bitartez emateko konpromisoa hartzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak, hari aldez aurretik mandatua emanda.

En el convenio marco de colaboración la Diputación Foral de Gipuzkoa se compromete a prestar la asistencia técnica requerida por los ayuntamientos y entidades locales en esta materia a través de su sociedad pública foral, previo el correspondiente encargo a la misma.

Berariazko hitzarmenetan, berriz, delako toki-erakundeari dagokionez garatu beharreko jarduketak eta alderdi bakoitzaren betebeharrak zehazten dira, betiere, esparru-hitzarmenak modu orokorrean aurreikusi dituen estipulazioei jarraikiz.

En los convenios específicos, se determinan las obligaciones y actuaciones concretas a desarrollar en relación con la entidad local afectada, ajustándose siempre a las estipulaciones establecidas con carácter general en el convenio marco.

Lankidetza hori lurralde historikoko udalei beren helburuak lortzen laguntzeko aipaturiko eskumenean oinarritzen da, eta interes publiko ukaezina du, ez bakarrik udal administrazioaren esparruan informazioaren eta komunikazioen teknologien berezko tresnen erabilera garatzen delako, eta, horrela, udal zerbitzu publikoen eraginkortasuna handitzen delako, baita tresna horiek udalerrien artean eta foru sistema informatikoekin erabiltzeko aukera ematen duelako ere; horrela, bitarteko eta zerbitzu publikoak batera erabiltzea errazten da, eta, aldi berean, foru kudeaketa hobetzen da Foru Aldundiaren eta udalen esparruen eskumenak elkarri lotuta dauden arloetan.

Dicha colaboración, cuya base se sitúa en la referida competencia de coadyuvar con los ayuntamientos del Territorio Histórico a la consecución de los fines que les son propios, reviste un innegable interés público, no solo por desarrollar el empleo de las diversas herramientas propias de las tecnologías de la información y de las comunicaciones en el ámbito de la administración municipal, incrementando con ello la eficiencia de los servicios públicos municipales, sino por permitir la integración e interoperabilidad de dichas herramientas entre los distintos municipios y con los sistemas informáticos forales, facilitando de esa forma la utilización conjunta de medios y servicios públicos y redundando a su vez en una mejora de la gestión foral en aquellas áreas en las que se interrelacionan las competencias de los ámbitos municipal y foral.

Ildo horretatik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48. artikuluari jarraikiz, administrazio publikoek, beren eskumenen barruan, hitzarmenak sinatu ahal dituzte Zuzenbide Pribatuko entitateekin, xede komun bat lortze aldera, betiere, modu horretan kudeaketa publikoaren efizientzia hobetzen bada, bitarteko eta zerbitzu publikoen baterako erabilera errazten bada eta erabilgarritasun publikoko jarduerak egin daitezen laguntzen badu, besteak beste.

Gainera, hitzarmen markoa hori eta ondoriozko berariazko hitzarmenak Sektore Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen aplikazio eremutik kanpo gelditzen dira, bere 6.1 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Horrenbestez, esku hartzen duten erakundeek lankidetza hitzarmen hau izenpetu dute honako klausula hauen arabera,

Al respecto, el artículo 48 de la Ley 40/2015, de 1 de octubre, de Régimen Jurídico del Sector Público, permite a las administraciones públicas, en el ámbito de sus respectivas competencias, suscribir convenios con sujetos de derecho privado, para la consecución de un fin común, siempre que sirva, entre otras cosas, para mejorar la eficiencia de la gestión pública, facilitar la utilización conjunta de medios y servicios públicos, y contribuir a la realización de actividades de utilidad pública.

Además, tanto el citado convenio marco como los convenios específicos quedan excluidos del ámbito de aplicación de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, de conformidad con lo previsto en su artículo 6.1.

En consecuencia, las entidades intervinientes proceden al otorgamiento del presente convenio de colaboración de acuerdo con las siguientes,

KLAUSULAK

LEHENA. *Hitzarmenaren xedea.*

Lankidetza-hitzarmen honek IZFE SA sozietateak Hernaniko Udalari egingo dizkion informatika-zerbitzuak zehaztea du helburu. Halaber, zerbitzuok egiteko era eta baldintzak zehaztuko dira.

BIGARRENA. *IZFE SA sozietatearen betebeharrak.*

Oro har, IZFE SA sozietateak konpromisoa hartzen du, egindako informatika-zerbitzuei dagokienez, Hernaniko Udalak eskatzen dizkion informatika, mantentze eta kudeaketako arazoetan aholkularitza, sostengua eta laguntza emateko.

CLÁUSULAS

PRIMERA. *Objeto del convenio.*

El presente convenio de colaboración tiene por objeto la determinación de los servicios informáticos que IZFE SA prestará al Ayuntamiento de Hernani así como la forma y condiciones de realización de los mismos.

SEGUNDA. *Obligaciones de IZFE SA*

Con carácter general, IZFE SA se compromete a prestar el asesoramiento, apoyo y asistencia en cuestiones informáticas, de mantenimiento y de gestión que le sean requeridos por el Ayuntamiento de Hernani en relación con los servicios informáticos prestados.

Halaber, zerbitzu informatikoen ezarpena bermatuko du Hernaniko Udaleko antolamenduaren egiturako maila guztietan, honen ezaugarri eta behar zehatzen arabera, horretarako erakundeko langileei prestakuntza egokia eskaini beharko dielarik.

Asimismo, garantizará la implantación de los servicios informáticos en todos los niveles de la estructura organizativa del Ayuntamiento de Hernani, en función de sus características y necesidades concretas, debiendo para ello ofrecer la formación adecuada al personal de la Entidad.

HIRUGARRENA. *Hernaniko Udalaren betebeharrak*.

Hernaniko Udalak konpromisoa hartzen du hitzarmen honen xede diren informatika-zerbitzuak eman eta jasotzearen ondoriozko diru-ekarpenak hitzarmen markoaren II. Eranskinean zehazten den gastuak banatzeko sistemaren eta hitzarmen marko horretan azaltzen den jarraipen batzorde betearazleak proposatutako banaketa irizpideen arabera egiteko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Udalekin informatikako lankidetza proiektuaren kostuaren %100eko ekarpena mantenduz.

Baita ere, ezarrita dauden edo ezarri nahi diren informatika zerbitzuak eta produktuak garatu eta hobetzera zuzendutako jardunetan (informatika egiturak definitzea, irizpideak eta estandarrak finkatzea, aplikazio berriak definitu, garatu eta ezartzea...) eraginkortasunez laguntzeko eta parte hartzeko konpromisoa hartzen du.

TERCERA. *Obligaciones del Ayuntamiento de Hernani*

El Ayuntamiento de Hernani se compromete a realizar las aportaciones económicas que resulten como consecuencia de la efectiva prestación y recepción de los servicios informáticos objeto del presente convenio, de acuerdo con el sistema de distribución de gastos previsto en el Anexo II del convenio marco y los criterios de distribución propuestos por la Comisión de Seguimiento Ejecutiva contemplada en dicho convenio marco, manteniendo la aportación del 100% del coste del proyecto de colaboración informática con los ayuntamientos del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Igualmente se compromete a colaborar y participar activamente en cuantas actuaciones se lleven a cabo tendentes al desarrollo y mejora de los servicios y productos informáticos implantados o cuya implantación se pretenda (definición de estructuras informáticas, fijación de criterios y estándares, definición, desarrollo e implantación de nuevas aplicaciones, etc...).

LAUGARRENA. *Informazio sistemen segurtasuna*.

1. Hitzarmen honen xede diren zerbitzuak emateko, IZFE SAk bete egingo ditu informazio sistemen segurtasunari dagokionez arlo hauetan indarrean dagoen arauditik eratorritako betebehar guztiak: administrazio elektronikoa eta identifikazio sistemak; izaera pertsonaleko datuen babesa; eta jabetza intelektualaren babesa softwarearen erabileran eta garapenean.

CUARTA. *Seguridad de los sistemas de información*.

1. Para la prestación de los servicios objeto de este convenio, IZFE SA, cumplirá con todas las obligaciones derivadas de la normativa vigente en materia de seguridad de los sistemas de información, en el ámbito de la administración electrónica y los sistemas de identificación, en el ámbito de protección de datos de carácter personal y en el ámbito de la protección de la propiedad intelectual en el uso y desarrollo de software.

2. IZFE SAk beharrezko neurriak hartuko ditu, neurri teknikoak zein antolaketa mailakoak, informazioaren eta zerbitzuen segurtasuna bermatzeko eta horiek alteratzea, galtzea eta baimenik gabe tratatu edo eskuratzea saihesteko. Horretarako, une bakoitzean dauden bitarteko tekniko egokienak eta antolakuntzazko bitarteko onenak erabiliko ditu, horien gainean izan daitezkeen arriskuak kontuan hartuta.

3. Izaera pertsonaleko datuen babesari buruz indarrean dagoen araudian aurreikusitakoari jarraituz, Hernaniko Udala izango da tratamenduen arduraduna, eta IZFE SA, berriz, tratamendu eragilea izango da.

IZFE SAk berak gordetzen duen informazioa soilik tratatuko du, udal edo toki erakundeak formalki izendatutako tratamendu arduradunengandik jasotzen dituen jarraibideei jarraituz, eta inoiz ez du aplikatuko edo erabiliko hemen aurreikusitakoa ez den beste helburuetarako.

IZFE SAk, informazioak eta zerbitzuak jasotzeko unean, ez du horien osotasun eta segurtasuna babesteko beharrezko neurriak betetzen ez dituen sistema informatikorik erabiliko. Gauza bera informazio eta zerbitzuak gordetzen edo tratatzen diren lokal, ekipo, sistema eta programei dagokienez ere.

4. Informazio eta zerbitzuen tratamenduko edozein fasetan parte hartzen duten IZFE SAren langileek eta udaletako eta gainerako toki erakundeetako zerbitzuek indarrean dauden segurtasun neurriak eta sekretu profesionala mantendu behar dituzte horiei dagokienez, eta gorde egin behar dituzte; eta betekizun hauek indarrean jarraituko dute, hala egokituz gero baita IZFE SArekiko harremanak amaitu ondoren ere.

IZFE SAk obligazio honen berri emango die bere langileei, izan ditzaketen erantzukizunak aditzera emanez. Eta obligazio hau bermatzeko beharrezko neurriak hartuko ditu.

2. IZFE SA, adoptará las medidas de índole técnica y organizativas necesarias para garantizar la seguridad de la información y servicios y evitar su alteración, pérdida, tratamiento o acceso no autorizado, adoptando para ello los medios técnicos y organizativos que en cada momento sean los más idóneos a éste fin y teniendo en cuenta los riesgos a que pudieran estar expuestos.

3. En cumplimiento con lo previsto en la normativa vigente en materia de protección de datos de carácter personal, el Ayuntamiento de Hernani será considerado responsable de los tratamientos, e IZFE SA, será considerada una encargada de tratamiento.

IZFE SA, únicamente tratará la información de la que es depositaria conforme a las instrucciones que reciba de los responsables de los tratamientos formalmente designadas por los ayuntamientos o entidades Locales, y no la aplicará o utilizará con fin distinto al aquí previsto.

IZFE SA, no albergará la información ni servicios, en sistemas informáticos que no reúnan las condiciones necesarias para salvaguardar su integridad y seguridad. Ello es extensible a los locales, equipos, sistemas y programas en los que se almacenen o se traten.

4. Las personas empleadas por IZFE SA, que intervengan en cualquier fase del tratamiento de la información y los servicios de los ayuntamientos y resto de entidades locales están obligadas al cumplimiento de las medidas de seguridad en vigor, al secreto profesional de los mismos y al deber de guardarlos, obligaciones que subsistirán, en su caso, después de finalizar sus relaciones con IZFE SA

IZFE SA, informará de esta obligación a su personal, con advertencia de las responsabilidades que se pudieran incurrir, y adoptará las medidas necesarias para garantizar esta obligación.

Neurri horiek aplikatuko zaizkie, baita ere, tratamenduan parte har dezaketen hirugarrenen langileei; hortaz, hori jasota egongo da dagozkien zerbitzu prestaziorako akordioetan.

Estas medidas serán también aplicables a personal de terceras personas o entidades que puedan participar en el tratamiento, lo que se recogerá en los acuerdos de prestación de servicios correspondientes.

5. Hernaniko Udalaren informazioa, tratamenduaren xede izango dena, hirugarren pertsona fisiko edo juridiko, publiko edo pribatu bati komunikatzeko, ezinbestekoa izango da informazioaren edo tratamenduaren ardura duen pertsonaren baimena.

5. La información del Ayuntamiento de Hernani objeto del tratamiento, sólo podrá ser comunicada a una tercera persona, física o jurídica, pública o privada, con la autorización de la persona responsable de la información o el tratamiento.

6. IZFE SAren sistema informatikoetan gordetako Hernaniko Udalaren zerbitzu eta informazioek legedi aplikagarrian zehaztutako baldintzen araberako segurtasun neurriak izan beharko dituzte. Beraz, aintzat hartu beharko dira hurrenak:

a) Gutxienez, administrazio elektronikoaren arloan informazioari eta zerbitzuei esleitutako mailari dagozkionak, kontuan hartuta Segurtasun Eskema Nazionalari buruzko 3/2010 Errege Dekretua.
b) Teknikaren egoera, aplikazio kostuak eta tratamenduaren izaera, irismena, testuingurua eta helburuak kontuan hartuta, izaera pertsonaleko datuen tratamenduari lotutako pertsonen eskubideei eta askatasunei dagokienez egon daitezkeen arriskuen azterketatik ondorioztatzen diren neurriak, izan teknikoak, izan antolakuntzakoak, arriskuaren araberako segurtasun maila bermatzeko xedez.

6. Los servicios y la información del Ayuntamiento de Hernani, albergados en sistemas informáticos de IZFE SA, deberán contar con las medidas de seguridad acordes a los requisitos definidos según la legislación aplicable:

a) Como mínimo, las correspondientes al nivel asignado a la información y los servicios en el ámbito de la administración electrónica, según el Real Decreto 3/2010, Esquema Nacional de Seguridad.
b) Las medidas de carácter técnico u organizativo que, teniendo en cuenta el estado de la técnica, los costes de aplicación, y la naturaleza, el alcance, el contexto y los fines del tratamiento, se deriven del análisis de los riesgos para los derechos y libertades de las personas asociadas al tratamiento de datos de carácter personal, con el objetivo de garantizar un nivel de seguridad adecuado al riesgo.

7. Zerbitzua zuzen ematen dela eta informazio sistemen segurtasuna egoki kudeatzen dela bermatzeko, IZFE SAk garatuta, onartuta eta ezarrita du Informazioaren Segurtasuna Kudeatzeko Sistema bat, ISO 27001 arauaren arabera ikuskatu eta ziurtatua.

7. Al objeto de garantizar la correcta prestación del servicio y la correcta gestión de la seguridad de los sistemas de información, IZFE SA, tiene desarrollado, aprobado e implantado, un Sistema de Gestión de Seguridad de la Información, auditado y certificado bajo la norma ISO 27001.

BOSGARRENA. *Emango diren oinarrizko zerbitzuak.*

IZFE SAk Hernaniko Udalari eskaintzen dizkion informatika zerbitzuen artean, oinarrizkotzat jotzen dira, eta haien mantentze eta hobetze lanek lehentasuna izango dute beste edozein proiekturen gainetik, gutxienez honako hauek:

1. Informatika, teknologia eta telekomunikazio azpiegiturekin lotutako zerbitzuak.

2. Hauekin lotutako proiektuak zuzentzea: IKT komunak, azpiegitura teknologikoak, informazio sistemak, soluzio informatikoak nahiz aplikazioak.

3. Soluzio informatikoak aztertu, garatu, integratu, ezarri eta mantentzeko zerbitzuak.

4. Lizentziak, aplikazioak eta soluzio informatikoak erosi eta kudeatzea udalen proiektu orrokorraren premiei erantzuteko. Zerbitzu honen barruan sartuko da, dagokionean, soluzioaren integrazioa eta egokitzapena.

5. Laguntza teknikoa erabiltzaileei.

6. Prestakuntza.

Zerbitzu horien deskribapen xehatua hitzarmen honen I. eranskinean garatzen da, eta, horrekin batera, IZFE SA sozietatearen bidez Hernaniko Udalari eskaintzen zaizkion aplikazio eta sistema informatikoen zerrenda ere jasotzen da. Horiek mantentzeko eta hobetzeko lanek lehentasuna izango dute beste edozein proiekturen gainetik

SEIGARRENA. *Beste zerbitzu batzuk.*

Oinarrizko zerbitzuez gain, IZFE SAk zerbitzu informatikoen katalogo hau eskaini ahal izango dio Hernaniko Udalari:

1) Bideragarritasun azterketak.

QUINTA. *Servicios objeto de prestación de carácter básico.*

Entre los servicios informáticos que IZFE SA ofrece al Ayuntamiento de Hernani, tienen la consideración de básicos, cuyo mantenimiento y mejora tendrá carácter preferente sobre cualquier otro proyecto, al menos los siguientes:

1. Servicios de infraestructura informática, tecnológica y de telecomunicaciones.

2. Dirección de los proyectos TIC comunes, de infraestructura tecnológica, de sistemas de información, de soluciones informáticas y aplicaciones.

3. Servicios de análisis, desarrollo, integración, implantación y mantenimiento de soluciones informáticas comunes.

4. Adquisición y gestión de licencias, de aplicaciones o soluciones informáticas de mercado, para dar respuesta a necesidades del proyecto general de los ayuntamientos. Este servicio puede incluir en su caso, la integración y adaptación de la solución.

5. Asistencia técnica a personas usuarias.

6. Formación.

La descripción pormenorizada de estos servicios se desarrolla en el Anexo I de este convenio, junto con la relación de aplicaciones y sistemas informáticos también considerados básicos que a través de IZFE SA se ofrecen al Ayuntamiento de Hernani, y cuyo mantenimiento y mejora tendrá carácter preferente sobre cualquier otro proyecto.

SEXTA. *Otros servicios.*

Además de los servicios de carácter básico, IZFE SA podrá ofertar al Ayuntamiento de Hernani el siguiente catálogo de servicios informáticos:

1) Estudios de viabilidad.

2) Tratamendu informatikoa izan dezaketen proiektuak definitzen laguntzea.

3) Konponbide informatikoak aplikatu aurreko antolaketa azterketak egitea.

4) Aplikazioak edo merkatuko soluzio informatikoak eskuratzeko aholkularitza, behar espezifikoei erantzuteko.

5) Aholkularitza informatiko eta teknologikoko zerbitzuak. Informazioaren eta komunikazioaren teknologien arloko plan estrategiko korporatiboak definitu, ezarri eta gauzatzea, nahiz horien inguruko aholkularitza ematea

6) IKT proiektuen, azpiegitura teknologikoen, informazio sistemen, soluzio informatikoen eta aplikazio espezifikoen zuzendaritza.

7) Udalarentzako berariazko softwarea garatzeko zerbitzuak.

8) Azpiegitura zerbitzuak IZFE SAren hodei pribatuan.

9) Toki erakundearen sareari dagozkion elementuak -zerbitzari eta routerrak- konfiguratzen laguntzea, bai eta lanpostuari dagozkionak ere.

10) Erakunde eskatzailearen beharretara egokitutako prestakuntza programak, IZFE SAren egoitzetan edo erakundearen beraren egoitzetan.

11) Beste zerbitzu batzuk: IZFE SA sozietatearen xedearekin zerikusia duen beste edozein zerbitzu

2) Colaboración en la definición de proyectos susceptibles de tratamiento informático.

3) Realización de análisis organizativos previos a la aplicación de soluciones informáticas.

4) Asesoramiento para la adquisición de aplicaciones o soluciones informáticas de mercado, para dar respuesta a necesidades específicas requeridas.

5) Servicios de asesoramiento, consultoría informática y tecnológica. Asesoramiento, definición, implantación y ejecución de los planes estratégicos corporativos en el ámbito de las tecnologías de la información y la comunicación.

6) Dirección de proyectos TIC, de infraestructura tecnológica, de sistemas de información, de soluciones informáticas y aplicaciones específicas.

7) Servicios de desarrollos de software específico para el ayuntamiento.

8) Servicios de infraestructura en la nube privada de IZFE SA.

9) Apoyo en la configuración de los elementos propios de la red de la entidad local como servidores y routers, así como en los propios del puesto de trabajo.

10) Programas de formación adecuados a las necesidades de la Entidad solicitante, en las sedes de IZFE SA o en las de la propia Entidad.

11) Otros servicios: Cualquier otro servicio que requiera, relacionado con el objeto social de IZFE, SA

ZAZPIGARRENA. *Prestakuntza*.

IZFE SAk Foru Elkarteak berak garatutako aplikazio informatikoei buruzko prestakuntza ikastaroak antolatu eta emango ditu, batez ere, Hernaniko Udaleko langileen aldetik tresna informatikoen erabilera zuzena ziurtatzearren, betiere, hitzarmen markoko hamabosgarren klausulan hitzartutakoari loturik.

Prestakuntzaren arloko helburuak finkatzeko, irizpide orokor hauek hartuko dira kontuan:

- Urteko prestakuntza egutegiak egoteko ahalegina egingo da. Egutegi horiek erabiltzaile guztiei jakinaraziko zaizkie, komenigarritzat jotzen den moduan, eta IZFE SA enpresak Interneten dituen foroetan ere sartuko dira.

- Ahaleginak egingo dira prestakuntzak maila aurreratuak izan ditzan, bai bulegotika aplikazioetan, bai IZFEren aplikazioetan.

- Aplikazio bakoitzeko eskuliburuak egingo dira, argiak eta ondo egituratuak, erabiltzaileei laguntzeko.

ZORTZIGARRENA. *Udal-solaskideak*.

Hitzartutako alderdien artean beharrezko komunikazioa mantentzearren, Hernaniko Udalak ordezkari bat izendatuko du IZFE SA sozietatearekiko solaskide gisa, egindako edo egingo diren zerbitzuekin zerikusia duten eta toki-erakundean eragina izan dezaketen gai edo gorabehera guztiak koordinatzeko.

BEDERETZIGARRENA. *Fakturazioa*.

Hitzarmen honen xede diren zerbitzu informatikoak emateagatiko fakturazioa, bai oinarrizko zerbitzuak, bai beste zerbitzu batzuk, hiru hilean behin egingo da, arau orokor gisa, eta honako kontzeptu hauek jaso beharko ditu:

SÉPTIMA. *Formación*.

IZFE SA organizará e impartirá cursillos formativos sobre las aplicaciones informáticas desarrolladas por la propia Sociedad Foral, fundamentalmente, a fin de asegurar el correcto manejo de las herramientas informáticas por el personal del Ayuntamiento de Hernani.

En la fijación de los objetivos en materia de formación se tendrán en cuenta los criterios generales siguientes:

- Se procurará que existan calendarios formativos anuales, que se comunicarán a todas las personas de la forma que se estime más conveniente, además de su inclusión en los foros de que IZFE SA dispone en Internet.

- Se intentará que la formación alcance también niveles avanzados, tanto en las aplicaciones ofimáticas, como en las propias de IZFE.

- Se elaborarán manuales por cada aplicación, claros y bien estructurados, que ayuden a las personas usuarias.

OCTAVA. *Interlocución municipal*.

Al objeto de mantener la necesaria comunicación entre las partes convenidas, el Ayuntamiento de Hernani nombrará una persona representante de la Corporación en calidad de interlocutor ante IZFE S.A, con la finalidad de coordinar cuantos asuntos o incidencias afecten a la Entidad Local en relación con los servicios prestados o que vayan a prestarse.

NOVENA. *Facturación*.

La facturación por la prestación de los servicios informáticos objeto del presente convenio, tanto los <servicios de carácter básico> como <otros servicios>, se realizará con carácter trimestral, como norma general, y deberá incluir los siguientes conceptos:

1. – Oinarrizko zerbitzuak, honako hauek barne:

Lankidetza proiektuaren gastuen derramari dagokion partea, lankidetza proiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. berariazko hitzarmen honen eranskinean ezarritako gastuen arabera.

2.- Beste zerbitzu batzuk (hitzarmen honen seigarren klausulan ezarritakoak).

Hernaniko Udalak eskatutako zerbitzuak, baldin eta horien kostua ez badago jasota Udalaren lankidetza-proiektuaren urteko kostuan –Oinarrizko zerbitzuak–, Hernaniko Udalak onartutako eskaintza espezifikoan jasotzen den moduan eta prezioan fakturatuko dira.

Hernaniko Udalak hitzarmen honen arabera bere gain hartutako konpromiso ekonomikoak finantzatzeko kredituak (lankidetza proiektuaren oinarrizko zerbitzuen urteko Adenda-Derrama II. eranskinean) adierazitako zenbatekoak dira, eta bertan adierazitako aurrekontu partidetan daude kontsignatuta.

HAMARGARRENA. *Eztabaidak konpontzea.*

Hitzarmen honen kudeaketa, jarraipena eta kontrola egiteko, hitzarmen markoaren bederatzigarren klausulan ezarritako jarraipen batzordeari aurkeztuko zaizkio, argitu eta ebatzi ditzan.

1.- Servicios de carácter básico, que incluyen:

Parte correspondiente a la derrama de gastos del proyecto de colaboración, con arreglo a los gastos establecidos en el Anexo II, Adenda-Derrama anual servicios básicos proyecto colaboración, del presente convenio específico.

2.- Otros servicios (establecidos en la estipulación sexta del presente convenio).

Aquellos servicios requeridos por el Ayuntamiento de Hernani, cuyo coste no se encuentre recogido en el Coste Anual del Proyecto de Colaboración Ayuntamiento - Servicios básicos-, se facturarán en la forma y por el precio que se recoja en la oferta específica aprobada por el Ayuntamiento de Hernani.

